



**Idiazabalgo**  
Udala

**EZ OHIKO UDALBATZARRA**

**2023ko**

**uztailaren 27an**

**LEKUA:**

Udaletxeko

Batza gela

**LEHENDAKARIA:** Iñaki Alberdi Iparragirre (EH BILDU)

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Iñaki Arriaran Murgiondo (EH BILDU)

Jaione Munarriz Aramendi (EH BILDU)

Eunate Elio Cemborain (EH BILDU)

José Agustín Urteaga Usandizaga (EH BILDU)

Patxi Mujika Olaizola (IZALBERRI)

Aitziber Aizpuru Ceberio (IZALBERRI)

**EZ BERTARATUAK:**

Jone Ormazabal Zabaleta (EH BILDU)

Aimar Lizarazu Iztueta (EH BILDU)

Ioana Prados Alustiza (EH BILDU)

Mikel Mujika Romero (IZALBERRI)

**IDAZKARIA:** Garazi Arraibi Larrea

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**ORDUA:** 17:30etan

**BAKARRA.- Gurutze Berriko eraberritzearen esleipena onartzea, hala badagokio.**

2023ko uztailaren 17an ospatutako ez ohiko Bilkuran Gurutze Berriko eraberritzea Construcciones Iturrioz SAri esleitzearen proposamena onartu zen. Horren ondoren, Construcciones Iturrioz SAK pleguetan jasotako beharrezko dokumentazioa eta behin betiko bermea aurkeztu du, Kontratazio Mahaiak egokitzat emanda.

Plegu administratiboetako 44.artikulua jarraiki, Kontratazio-organoak, bost egun balioduneko epean kontratua adjudikatuko du eta horretarako bildu da gaur Osoko Bilkura.

Hori horrela, Kontratazio-Mahaiaren proposamena aztertuta, gaia bozkan jartzen da eta ahobatez onartzen da:

LEHENA.- Gurutze Berriko eraberritzea CONSTRUCCIONES ITURRIOZ SARI esleitzea 2.230.845,08 eurogatik.

BIGARRENA.- Kontratua burutzea 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena, eta 2023KOIR0001 espedienteko plegutan jasotakoaren arabera.

Bilkura 17:35etan bukatzen da.

Alkatea

Idazkaria